

JENTILLEN EMAKUMEAK

Mendi-erroka latza da Aralarre'ko mendiya, Euskal Erriaren gerrian mokortua. Aintzineko mendetan —orain dela urteak millaka— “jentillak” zeritzaten Aralarre'ko zuloetan bizi ziren gizeliak. Zenbeitek uste bete dute arrotzak zirela jentillak; olakoeri baño ayer zaye beste aburu bat, sendoa: jentillak eziren kanpotarrak ba ordean jentillak kanpotartzat zeuzkatenak. Alderdi biyak su ta gar ditugu arizanak elkarreri aitz. Zer nai den ere, jentillak Aralarre'ko malda patarretan koka bizi biren aspaldidanik; beste gizeli zenbeit, egiyetan, beti alderako egiyetan. Biok, elkarren koko ta etsaitzat agertzen ziren.

Jentillak, aundi ta goi, giñarre gozoko, larru gorri guriak, biloa ere bai sugorri edo artagorri, sarritan, begiyak urdin, sudurra makur, azkar ta zankarru, sorbaldak zabal, burua kizkur ta bekokiya, agerre. Ola ziren Aralargoitiko jendiak. Ikusagun orain Aralarbeitikoak: beltzaranak ziren edo morixkak, soina motzago, txitzez estuxe, aurpegia bildu, sudurra txorrotx, betaldiya, zauli, ikatz-disdiratsu ta sarkor, aizto-gizas; enborra, laukun, oreinak bezin erne, laxterkari, soma bizi ta zail.

Biok zuten leya elkarreri so, biok odol beroa ta eskua bizkor.

Jentillak goitian, morixkak beitian, nunbait eta noizbait elkarreri jokatuko zitzaizkien, bañan elkarren bildur ziren. Ta bein batean otu zitzaen morixkeri ederrak zirela jentillen emakumeak, neskatxak bai ta zorhituak ere. Aen larru larroxa, legun eta gozo, aen aragi gosegarriya, musuak musuko, titi-sagarrak ika ta muñuñ! Oin ederreko neskek eta emazteak eziren aise ageri ta berenak baño joriago ziren. Joanen lirake bai arien eske ta lapurketan, naiz eta jentillak bidean topatu ta borroka beartu. Bañan... jentillak ikaragarriyak ziren eta zendoyak eta indar gaitzeko alimale zakarrak; azpitik eta ixil sartu bear litzayeke, zori onaz jokatzeko. Oi, oi... ekinza zen gogorra! Laxter etsi zuten erritarrak bear zirela berhatu,

jentilleri oldartzeko, ta ez nola nai ere berhatu, txiñurriyak ainbat agian. Ola asko izanik, sarbidea izan leike errezagó.

Orra ba, andik iragaiten zirenak gerazi zituzten, azi-bearrez, arik eta jentillen apurtzerañoko indarra batu arte. Azkenik, sasoya arako iduritu zitzaizen egun batez sayo bat aurdiki zuten jentillen lurretan goruntza. Obe zuten egin ezba'lute ere. Azken beltz-beltza izan zen ura, aldi-apur bateko beintzat eta zuloetatik ez elkitzeko aspaldi luzean ere. Aldi bat areago etsi zuten geyago bear zutela izan lagunetan, jentillekin borrokan ari izateko. Berenganoz bañan ezin zuten naiko lagunak ekarri; beste erritarrak ere bear zituzten berekin geldazi.

Bitartean irakurle batek galde bat bai edo dit: Jentillak, oin izi arazle, oin zendoi, aldi-andana bat azkarrago morixkak baño, nola arraye, ziren morixken bildur? Ezbeita mixterioa. Jaungoikoaren zuhurtziak egin, izaki bat ezda munduan buru-beiramenena gabe; morixkak eztare. Jentillak baño ariñago ziren; okulu zitezkean eta koka airusago, alaber altxa, etzan eta kurubilkatu eta laxter egin, bear orduan, jentillak baño zaluyago; indarraz ez ezik, txikiyek aundieri enantzu ekentzen ziyezten. Gañera, jentillak oin gizalarrri zirela-ta, edonundik nabarmenak ziren. Jentil batek itzuli bat egin orduko, morixkak bazituen irur eginak. Arrien botatzen jentillek erakutsi ahalmenak zituen morixkak geyen-geyenik izutuak; ta ez bota bakarrik bai eta mendi-errotik idoki ta bulkatzen; auxen beitzuten jentillek gaitzeneko aldezia; au ta goitian bizi izateko onurea. Arriak eroso euki baita goyaldea ere arrien jaurtitzeko, zer geyago bear zuten zendoyek lepoan atxikitzeko tinko morixka gaizoeri? Ezen espantagarriya zen jentillen apara, asten zirelarik arri mokorren lasaitzen arru ta patarretan behera. Dinbili-danbalako arritzar-jasa morixka larrituen biztegiyetan inkatuta lotzen zen, barneko ta kanpokoak oro zapaturik. Azi ta berhatu bearrean, urri ta suntsitzen ziren morixkak.

Jentillen emakume ugarienganako tirriyak biotza gilikatzen ziyen morixkeri. Beti ta areago. Au omen zuten señaie Jainkoak nai beitzuten morixken aintoa emendatu; zeren olatsu egiten beitu Jainkoak, nai duenean auniztu ditezten jendiak. Garri bat ezartzen diye biotz-biotzean besteren emakumien gosez. Naiko emakumeak ezba'zituzten gizonek, beste erri batean eske joaten ziren. Ta ukatzen baldin ba'zitzaizkien, berekin artzen zituzten lotsarik gabe. Erlisio guziek ezdute onen agintza bañan morixken Jainkoak ezarri legea auxen bai zen bederik. Lege bat, olatsuko, gertatua degu beste erri batzuetan ere.

Duda-mударik ez, morixkak bear ziran askotu jentillak garaitu ahal izateko; garaitu-bear ertxia zuten, bizi ahal izateko; biziak

ditu ezin-bertzeko legeak, izaki guzian legeak. Beraz, bizi ahal izateko bearreko aintoan, bear-bearrak zituzten morixkek jentillen emakumeak; ederrak beitziren eta ema propioak eta sabel narroak eta maitagarri. Gañera, ariekin nastuta morixken gixonak, sarri ta larri gizonduko lirake. Ta orduan ondorengoek indarrez ahala luteke geyago ta zoria argituko litzayeke munduan bein eta betikotz. Ta gero ta areagoko emakumeak ebatsita, jentillak urrituko lirake bai ere gero ta geyago. Ola eskastuko litzayeke azia ta trixtura sartuko, emakume gabe bizi-bearrak eta. Onen ondoan, arien lurak aise berentzat altxatuko lituzteke. Ezpairik ez, jentillak elirake iardokiko ta, Aralarre'koa utzita, alde eginen luteke bela-bela, ez agertzeko berriz. Ola bear zuten morixkek.

Emakumiekin auzia asi bear zen oraiko ontan ere. Baita azkendu jentillen emakumiekin, jentillekin azkentzekotz. Orduz geroztik eta noski lehenagotik ere, emakumeak gizonen ekiñetan maizik Alfa ta Omega ditugu izanduak.

Jentillen ixtorioa, bañan, ezda amaitua. Yarreikiko da.

JOSE AGUERRE.
(Euskalzaindiko)

